

Itziar Madina

BESTE EGUZKIA





«*Le soleil se lève à l'Est et se couche à l'Ouest*». «Eguzkia sortaldean jaikitzen eta mendebaldean etzaten da», hala erakasten zuen Frantziako eskolak; besteek ere bai, akaso; XX. mendeko 80ko urteetan. Eta haurrek, letania buruan, goizero gosaltzean etxeko leihotik zakusaten argia; noiz begi goibeldua noiz suzko borobila; izar bizia zela jakinik, grina handiagoz irensten zuten amak prestatu esnea. Eta martxoko ilunabar luzeetan zeruertzean desagertuz zihoanean astindu azkarragoz jotzen zuten pilota paretaren aurka, gautu aurretik indarrak Harekin bat xahutu nahiz bezala. Harekin. Eskolak ez aitamak ez inork sekula sakratua zenik esan ez zien emetzat harturiko zeruko izar bizi-emangarriarekin. Haiek beraiek ere ba ote zekiten? Gauza bat ziurra, goiz fresko ilun edo arrastiri argi-itzaltsuetan, edo berunezko eguerdi sargorietan orobat, Haren indar misteriotsua gailentzen zitzaiera.

Buruan, errogatibaren pare, oihartzunak bazerraiian: «*Le soleil se lève à l'Est et se couche à l'Ouest*». Etengabeko ziskola betiereko mugimenduan. Adierazi gabe sendi izan dena, azaldu eta, bipilagoa da. Esku bat Ekialdeari, bestea Mendebaldeari zuzendurik, galdera bazetorkien: «Gure ortzia burutik buru argitu eta etzan ondoren, nora ote doa?». «Afrikanottoak iratzartzera!», helduek. Holaxe, beraz, inguru osotu bezala zuria eta beltza, Bata eta Bertzea lotzen ditu Eguzkiak.

Eta gauaren hala goizaren ertzean beso punta luzatuetan kilika zoragarritz, inguruaren hutsak deitzen zituen haurrak. Hauek erien muturrean indar zurrunbilotsua sumatzen zuten, eta begiak hetsirik, inguruminguru, dantzan, hutsaren baitan, zirimolan hasten ziren.

Egunsenti epela da. Zeruaren hegiak argitzen hasi dira, mendi-bizkarrak zama beltz pisuen gisan agerrazten dituztela, eta haizeak hegotik buhatzen du. Asunbordako sagarrondo berpiztuetan, xori goiztiarrak kantuz ari dira. Laster ihintzezko estalki freskoa bero eta lurrintsu airatuko da. Gaur, bizitzan besteak ez bezalako eguna du Domingok. Erabakia murtxikatua eta hartua du. Azkenean etorri zaio ordua. Bere artzain bizimoldea osoki aldatuko dela ohartu da: etxe inguru, egunean egitekoa, jatekoa, auzoak, aroa ere... den-dena arroztuko zaio. Baina gogoetatu du luzaz, eta daukan aukera bakarra dela badaki, ongi jakin ere. Bost haurrideetan bigarrena zen Domingo. Aitamak, Eulalia arreba gehiena eta anaiak ere aspaldian joan ziren, pur-

tta-purttu. Iturburu beltzetik ur tantak banan-banan isuriz doazen bezala, etxekoen multzoa deseginez joan zen. Ondoko putzuetan urtzen. Eta haietan iloba sanoak eta azkarrak etorri ziren, alafede! Bizian gauza ederrak egin zituzten gazteak. Koxe anaiaren alaba, demagun. Parisko Unibertsitate ospetsu bateko irakasle izatea lortu zuen, bere parekoen artean aski gora ei zen, buruzagietatik ez ote zen. Nola ez aipa Xantxo anaia gazteenaren hirugarren seme pilotaria, edo haren lehengusu Laurent errugbi jokalariairen trebeziak, Erramunen semea bera. Haien izenak arduraz entzuten zituen Irulegiko Herri Irratian, eta Domingori bularra hantzen zitzaion ardiak jeizten, etzanguak prestatzen edo behiak bazkatzten ari zen artean. Iloba guztiek gorapagarri zerbait egin zutela iduritzen zitzaion goizalde gorri hegotsu hartatik aurrera bizia sustraiz aldatuko zitzaion artzain zaharrari.

«Gaur abiatzen dudan bidaiatik ez banaiz gibelerat heldu, kabala maiteak, jakin ezazue oihaneko zerradura idekia duzuela. Hara zoazte, eta udako itzala izanen duzue, agortu ezineko ura, baita larrazkeneko ezkurra eta pagatxa aldia ere. Neguan berriz pentzea, eta biltegi bero hau denentzat». Gelditzen zaizkion ardi apurrak abisatu ditu Domingok, eta etxaldearen itzulia azken aldiz egin du. Horren ondotik, askaldu du. Usaian bezala, beharbada azkenekoz, arrautze eta xingarra, piper moletarentzat goizegi delako oraindik. Dena dela aurtten, baratzeke gutxi etorriko da Asunenbordara, ez baitu Domingok lurra irauli egin ere. Xingarrazpikoak berdin: «Ttutt!», zerri-hazgairik ez duelako utzi. Jakin bazekien joan den negutik maiatzeko lehen haize hegoarekin etxetik lekutuko zela. Nora ote? Argi zuen:

iragana eta geroa elkartuko zituen gunera. Joandakoa eta etortzekoa salbatuko zituen hartara. Eta heldua da horren tenorea.

Sukaldea garbi utzi eta arropa kanbiatzera doa Domingo. Logelako leihoa parez pare irekia, aita zenak gaztainondo landuaz egin armairu kurrinkaria zabaldu du, arraposki, errespetuz bezala. Arropa garbien eta zur zaharraren usainak datozkio batera, egun zirrargarriaren adierazle. Hasperen egiten du, bihotzaren taupadak lasaitzeko, bere bihotz isil eta lagunaren emozioa baretzeko. «Hago trankil, hago. Ala, zahar zuhurrarekin beldur haiza?», erraten dio pentsamenduka. Domingok ile urdina du, begi argiak eta sudur fin luzea, bere lepo eta gorputz osoa bezala funtsean. «Egiazko artzain euskalduna!», pentsatzen dute turistek galdu, eta Asunenbordara kasualitatez heldu direlarik, argazkiak hartuz. Edota Hego Euskal Herriko gazteek ere bai, artzain zaharraren bidez euskaltasunaren misterioa gorpuzturik ikusiko balute bezala, enfasiarekin agurtzen dutela.

Neguko merkatu egun firfirifaratsu bezain euritsu batez erositako jantzi iluna bere armairuko dilingotik hartu du eta jantzi. Freskoa da Domingoren larruaren azalean, erosketako momentuaren irudian, nonbait. Orain begitarte ur hotz handiz ikuztea eta ile laburrak orraztea gelditzen zaio. Bizarra atzotik moztua du. Domingok ez du usain goxorik erabiltzen. Nahikoa zaio eskuetan luzaz laztantzen duen xaboiaren hagin lodiak belarrondo eta sudur azpian uzten diona, mila xori kantari bezain alegeragarri den hura. Azkenik txapela jantzi eta prest dago. Orduan, bezperan kasu handiarekin ezer ez ahazteko prestatu baliza hartu du, esku batez, nahiz pi-

sutsua den. Maleta dirdiratsua ere asteko merkatuan euritakoak eta larruzko zakuak saltzen dituen gizon beltzari erosi zion negu honetan bertan, eta zailtasun gorriak izan zituen inork ez ikusteko Senegalgo saltzailearen postutik autorat halako puxka handia sartzen. Kasik zirkulazioa oztopatu egin zuen egun hartan, merkatugunera hainbeste hurbildu baitzuen ibilgailua. Eta, egia erranik, gidatzeko zuen lehengo abilezia flakatu bazitzaion ere, ez zuen orduko tutakada kontzertua merezi. «Zer nahi duk, zaharrok gero eta leku gutiago diagu *zozietate* honetan!».

Sekretua gordetzea lortu duela iduri luke, ordea, herrian inork ez diolako deus galdegin maleta horren erosteko arrazoiaz. Zer erantzunen zuen bestela? Ez zuen aurretik pentsaturik ezer ere, nahiz Parisko iloba bisitatzen joatekoa zela erran zezakeen. Baina gero, arraila beharko zuen jasan: «Hi Parisen? Mentsa haiz, bai, ardiak utziko dituala sinetsiko baitiagu!». Herritarrek ezagutzen zuten. Domingok lepoan pilatuak zermatzan dozenaka urteak ez zituen gehiago zenbatzen, eta urte luze horietan egun bakar batez ere ez zituen utzi bere kabalak. Herriko zaharrek ateraldiak egiten zituzten, baina ez zuen haietan ia parterik hartzen. Behin batez baizik ez zen Xiberura joan, eta Orhi mendia betiko urruntasunetik baino hurbiletik ikusirik, izugarriko bozkarioa izan zuen. Baina, oroz gaineetik, oroimenean atxikitzen zuen Miarritzera izan zirela halako batez herriko *adinekoen* autobusarekin. Eta Domingok geroztik itsasoaren usaina, eta karrikan harena-
ren ondoan maitearen itzala gordetzen zituen gogoan eta bihotzean. Ordu hartan hitzeman zion bere burua-

ri hil aitzin itsaso hegira bueltatuko zela. Ur handiaren bazter miresgarrira.

«Ez dea hala, ene bihotz zahar akitu maitea?», dio bat-batean goraki, pentsaketatik jalgiz, Domingo ondiko halabeharrez artzain erretiratu berriak. Kanpoan eguzkiak lehen izpiak erakusten ditu, aspaldian mendiak argitu eta xoriak txistuz hasi dira. Orobat gizonaren egitekoarentzat egun egokia seinalatzen dute. «Atxemanen diagu, ez inkieta, ene bihotz maitea, ur handiko gure kuttun miresgarria». Eta autorat doa, baliza eskuan.

Engoitik eguna argitu badu ere, gogoia oraindik erdi lokaturik dago Josefina, ohe barnean. Luze gabe goizeko askaria eginen du baiki, usaian bezala, laranja marmelada bi ogi xerra mehe xigortu gurineztaturen gainean, esne-malko batez margotuko duen te ketsuak lagundurik. Pentsatze hutsak ernarazten du doi bat, nahiz ez aski maindire epelen artetik altzarazteko.

Eta erdia lo, erdia esna, irrati-iratzargailuak belarri-ratzen diona aditu du, Gure Irratian. Honek halako baten ordua eman du eta emaztea zanpez iratzartu da. Ordua pasa badu berriz lokartu denetik. Orain bai, tenorea jin zaio: goizeko hamarrak dira.

Askaria eginik, Josefinak oren erdia iragan du bainugelan, eta ile hori-zuriak mottoan ongi tinkaturik agertu da handik, ezpainetan gorria eta begietan ikatza. ere oin biluzi garbitu berriek gelako moketaren gozoa zapaltzen dute, eta armairu zuri erraldoian dituen arro-

pei begira gelditu da bera, istant batez. Azkenean, gona urdin iluna eta gerrian hesten zaion trikota argia janzten ditu, eta karrikarat jautsi da, merkatura, bere zapata takoidunek kularra lehenik eta eskailerak ondotik mailukatzen dutela. Josefinak ez du igogailua sekula hartzen esku-hutsik doalarik, are gutxiago jaisteko. Familiako mediku Armand jaunak bezala, Josefinak ere halaxe uste du, bere odol nekatuaren ibilbidearentzat ez duela egiteko hoberik.

Emazteen adina ez ei da erraten. Baina Josefinak, ez guti fier!, lau haizetara hedatzen du berea: «Hirurogeita hamasei urte, heldu den astean!». Etxera etorriko zaion semeari eta haren alaben bisitari buruz pentsatzen bizi da azken egunotan. Horregatik gaur merkatura doa zer erosiko duen ikertzera, zer apairu prestatuko duen delibertzera. Merkaturako bidean, karrika maldatsutik goiti espaloian, Josefinak badu zalantza, arraina edo haragia. Semea arrain finen zalea da. Baina haren alabek, gastatu hutsak. Normala da funtsean, haien ama nolakoa den ikusirik! Errainaz pentsatzen duelarik, ia beti zainetan ematen da Josefina... Zer nahiagoko ote dute?! Gogoetan hasi da berriro. Bada, baserriko haragia eros lezake urtebetetze apairurako! Zergatik ez? Beharbada, ahatekia, aspaldiko partez! Bai, hori eta bera, ahatekia sukaldatuko zuen Josefinak, labean errerik! Miarritzeko larunbatetako merkatura datorren Euskal Herri barnealdeko ahate egile gazte umoretsu bat du, Patxo Arizpuru, gizon sanoa; Euskal Herrian ere guti gelditzen diren horietakoa. Eta ziur prezio onean ezin jasta handiagoko ahatekia salduko diola.

Besta egunean mahai gainera zer janari pausatuko duen jakinki, Josefina pozik dago. Eskuin eta ezker begiratu du eta Miarritzeko merkatuko sarrerara doan karrika zeharkatu du, urrats eztiz.

Asunenbordatik atera eta bi ordu geroago, lau gupilak eta horien gaineko karrozeria lohi idorrez ziliportatua, Ametzagako lepoan gora auto zuri bat doa, furgoneta ttipia, gizon mehe kaskazuri batek gidatua. Barnean altxor bat: maleta gorri berri leinurutsua, Domingori bizia gaurtik aurrera aldatuko dioten puxkaz betea. Gidariaren altxorra gorria da, laguntzailea, aldiz, beltza: gaztaina koloreko begi zirtzilak dituen *Ahabi* izeneko artzain zakur gaztea. Asunenbordako auzo ardidun guziak bekaizti ditu Ametzagako tontorrean goiti goiz erdiko eguzkian mihi arrosa jostalaria erakusten duen lau zangotako artzain beltzak. «Primadera hastetik udazkenera...». Momentu honetan, Domingoren eztarri lehorretik ateratzen den kantuñoaren lehen entzulea da *Ahabi*, eta funtsean bakarra. *Zamarilail* autoak nekez hauteman baitezake abesti hotsa, hain dira ozenak bere burdineriaren kurrinkak.

«Zer duk hire autoari eman *Zamarilail* izen hori ote? Burutik joana hiz, bai hi!», erran zion Tote Etxeparekoak behin. Zaldi zamaria bezain indartsua zen autoa, eta bataioko izena aspaldian aukeratu zuen Domingok. Nolaz? Ez zion inori adierazi: *Zamarilail* Baiona aldeko musika talde gazte baten izena zen. Domingorentzat ezezagunak ziren rap, funk eta mota horietako musika jotzen zuten. Udako gau ezti batez Irulegiko Herri Irra-

tian entzun zituen, eta haien musika eta solasa ere gustukoak izan zituen. *Zamarilail* deituz, autoaren kargari airean goratzeko heineko hegialak emanen zizkiola iduritu zitzaion Domingori. Eta ardi ernariak edo bildotsekilakoak pentzeko zola ilunetik ateratzen zituenean neguko lur umian lerratzea edo lohitzean kokatzea desafiatuz, *Zamarilailek* arinki beti gora joateko zuen gaitasuna bihotzez eskertzen zuen.

Orain, berriz, Domingo, *Ahabi* eta *Zamarilail*, Ameztagako Gaina iragan eta, bihurgunez bihurgune, itzalpetik eguzkirako pasaia etengabeetan, beherantz abiatuko dira itsasoraino, Miarritzera. Han, Josefinaren etxean aterpea izanen dutela espero du artzain zaharrak. Bihotzeko maite kuttuna du Josefina, biziak andretzat ematea nahi izan ez zuena. Ez, zeren Josefina Alkabeherkoa izanik ere, haren gurasoek hirira jo baitzuten fite, eta hala, haur denborako maitasuna gesalduz joan zen denborarekin. Josefina urtean bi aldiz jiten zen herrira eta zenbait aste iragaten zituen, amatxiren familia laguntzen. Aspaldiko denboretan. Luze gabe, haatik, hiriak hartu zion gaina, eta Miarritzek garaitu zuen Domingo. Edo zehazkiago apika, Miarritzeko gizon dirudun batek. Josefina Desmarchais anderea bilakatu zen, seme bat izan zuen, Jean Charles, eta urteetan Alkabeherera etorri gabe egon zen. Gero Alkabehere jendez hustuz joan zen. Erosotasun eskasetik ihes egiten lehenbizikoak gazteak izan ziren, beste herri guztiek zuten argindarrik Alkabeheren ez zela sekula piztuko ziurtzat emanik. Hamarkada batzuk geroago, zaharrak haien ondotik, seme-alabek ulertarazirik ez zituztela Alkabeheren zaintzen eta sendatzen ahalko. Hiria berriz nagusi.

Domingo artzainak azkenetan utzi zuen bere Alkabehera maitea, bihotza erdibiturik. Asunenbordan atzeman zuen bizitegia eta ardientzat heia. Eta Asunenbordara egun batez ustekabeen elurrak zion Josefina itzuli. Etxetik hurbil, Urxuri errekaen sorgia zegoen eta ibiltari anitzek bisitatzen zuten, uda ala negu. Lagunak galdu, eta norabidea galdegitera gelditu zen Josefina, non eta Asunenbordan. Arratsalde osoa iragan zuen Domingorekin supazter ondoan, eta gaua baino lehen taxia deitu zuen Miarritzera eraman zezan. Ordurako gizona zendu zitzaion, eta fortuna polita utzia zion. Elurtean galdu zenez geroztik, Josefina noizetik noizera Domingo bisitatzen etortzen zen. Halakoetan, eguerditan etxera sartzean «mahaina prest da!» entzuten zuen sukaldetik artzainak, usain gozoa zeriola tupinatik zein labetik, gazia eta gozoa biak nahas airean...

Autoan, kantua isildu da, eta Domingoren ezpainen irriño samur bat marraztu. Txapela kendu du eta burua hazkatu, bularra hantzen zaiola gordetzeko bere jarlekuan higituz, eta bihurtuneari ongi kasu emanaz, emeki-emeki Ametzagatik beheiti jarraikida. Orain bera doa Josefinarengana, nahiz Miarritzera hurbiltzeak ez duen guti beldurtzen. Zer izigarriak hango zalutasunak, jendearen presak eta begitarte murrizak! Bide erdian, Alkabehera sorterria. Sorterri hustua. Handik pasatu eta han pausatu nahi du Domingok, menditik Kantaurira heldu gabe, aitzina segitzeko indarrak hartzeko moduan. Ai bere Alkabehera! Alkabehera, holtza sakonean galdua, bide asfaltaturik gabeko laborari herria, erromatarren garaitik XX. mende erdira arte jendetsu eta uros bizi izana. Alkabeherako plazaz gogoratzen da Domingo, Ametzagan gaindi *Zamarilail* arraposki gi-

datzen duela, eta laiaenez. Eta orduan, laiaeneko semeak odol gaztearen braustadak sumatu ditu bere bihotz alai-tristean. Alkabehere, herri bildu berdea, herriko plaza eta iturria, haurrak, emazte, gizon eta zaharrak, uztailleko belar sartzeen ondoko bestak, urriko ultzia eta abenduko xerri hiltzea! Alkabehere koblakari ezezaguna, pilotari famarik gabekoa, dantzari izar ez bilakatu, dendari ez Parisen ibilia... Alkabehere herria. Eta orain, Alkabehere desagertzekoa, Alkabehere lurperatzekoa. Domingoren zintzurra tinkatu da horri buruz pentsatzean. Mende erdia bada ere utzi zuenetik, Alkabehere ez da sekula desagertu bere sentipenetik. Denboran gelditu zen eiki. Bihar mundu hobean bizitzeko asmoz amerikano dirudun batzuek beren gorputza izoztea eskatzen duten bezala, halako xantza merezi zuen Alkabeheretik ere, Domingoren ustez.

Berrikuntza proiektu batek aldiz, asmo horren aurka egin zezakeen luze gabe. Artzain zaharra beltzurika bideari. Urruti-Etxarte-Uhalde Eraikuntza Sozietate Elkartua (UEUS) hitzak burura datozkionean, baliza gorrian daraman gutunari pentsatzen du. Ohartu gabe, *Zamarilailen* bolanta tinkatu du.

«Jaun agurgarria, gutun honen bidez jakinarazten dizugu gure Sozietateak zinez gustu handia lukeela zurekin hitz egitea. Alkabehere herriko azken biztanlea izan omen zara, eta bizirik dagoen bakarra. Alkabeheren egitekoa dugun aisialdi proiektu historiko-kulturalaz argitasunak nahi dizkizugu eskaini, alde batetik. Baina, bereziki, zu zaitugun Alkabehereko iraganaren lekuko zuzenak merezi duen heineko eskaintza ere egin nahi dizugu». Adeitasun osoz, Etxarte jaunak agurtzen

zuen, eta Miarritzera bilera batera kartsuki gomitatzen, 2006ko maiatzaren 17ko goizean. Hots, bi egunen buruko.

Aditurik bazuen, bai, Domingok hamarkada bat lehenagotik UEUSEk egitekoa zuena, gibelaraz ezin zitekeen hura. Eta egun, kanpoan ederra izanagatik, barnean dena laino da Domingo, Alkabehereko Elain errekaeren murmurioaz, erleen burrunbaz, ainaren joan-etorriaz eta muskerren etzanaldi nagiez, Alkabehereren izate lokartu osoaz oroitzen denean, bidean beheiti doala. Gaurko Alkabehere aro berri batekoa da. Eta horretan, lurrak, kanpoak eta herriak bestelakutzen dira. Ongi ulertzen du Domingok, bai eta onartzen ere, eremuak behar direla haziz doazen biztanleriarentzat eta lantegientzat, gazteen behar berrientzat, hitz batez, Euskal Herriarentzat. *Lana Herrian!* margotzen zuten lehen gauaz herriko gazteek tindura beltzez argindarraren etxola zuri luzeetan. Estrainera joan beharrik gabe lana guztientzat, bide onak eta etxe berriak. Ez du dudarik bere ondokoei utziko dien herria hala ikusirik gustukoa duela. Aitzinatuz baita, eta ez bere zokoan egonez, Euskal Herria hain gustagarria bilakatu... Hala eta guztiz, zergatik sendi du orduan bihotzean zirrara bat? Zergatik du itxuraz aldatu Alkabeherez pentsatzeak? Zerk esplikatu UEUSEko arduradunekiko bilera hurbilago eta bere burua daldaratsuago nabaritzen duela? Galderari ihardesteko astirik gabe, Domingok eskuinera hartu du herriko baina astobidetik gehiago duen asfatorik gabeko xenda harri eta istiltsutik. Hogeita minututan Alkabeheren izanen dela kalkulatzen du, eta bazkaldu aitzin herritik itzuli bat eginen duela ari da engoitik pentsatzen.

Herri abandonatuaren itxurak sor liezaiokeen harriduraren beldurrez, sorteri amultsuaren irudia histen saiatzen da bere buruan: laparrak margotzen ditu dene-tan, belar gaixto luzeak nonahi, zuhaitz artatu gabe erori hautsiak bide bazterrean. Eta etxeetako teilatuak? Manezhaundirenekoa zulatua, Jabilarenekoa hinki-han-ka, eta... Iaiarenkoa? Hala-hola, doaike, haize, euri eta elurraren kontra zenbait borroka gehiago irabaz-teko gai oraino... Negu beltzaren hotzaldiak irudime-nean ditu Domingok, bide malkartsu ezagunari kasurik ez diola egiten. Haize buhako bortitzak egiten ditu Al-kabeheren, gero! Eta aspaldikoak izanagatik, hango elurte luzeak ziztagarri zaizkio laborari zaharrari maia-tzeko eguerdiko berotasunean. Alkabeherera daraman bidearen hegiak aldatu gabeak dira, ez bada oihana lu-zatu eta zahartu dela. Honek pago buru eder sendoak, gaztainondo eta haritzak, harkaitz alimaleak eta uhaitza sigi-sagatsuak agertzen ditu, milaka abereen gerizaleku: zozo, uzkinaxo, papogorri, birigarro, basahuntz, basur-de, erbi, azeri, azkonar, urtxintxa... Domingok zerura zuzentzen du begirada eta urdin garbian bi hegal zo-rrotz ikusten: «Mirua ihizian dabila!». *Zamarilailen* leihoa ideki du harrapariaren intziria aditzeko, nahiz haren orde z gizon oihu baten moldeko zerbait dator-kiola iduritzen zaion. «Hori orro bitxia! Zer ote zen hori?», harritu da Domingo gibeledko irudia ematen dion leiharretik *Ahabi* zakur prestua baizik ez ikusiz. Be-rantegi da orduko. Domingok ez du mendiaren ezke-rreko mazelan gora bista itzultzeko paradarik. Bat-batean harri eta burdin harramantza gordinean, *Zamarilail* au-toa bidearen erdian agertu arroila ezin gaindituzko baterat erori da, gainbehera eta karranka. Hausturaren

hotsez han seko gelditu da. Autoaren barnean, *Ahabik* altzairuzko hesia jo du bortizki eta minez ulubiaka hasi da. Domingo berriz, uhalak du salbatu burua larriki kolpatzetik.

«Desmarchais anderea, jaunak egun on! Betiere zu arrosa bezain airosa!». Ikusi gabe ere, Josefinak Renaudin jauna ezagutu du, karrikan bere gibeletik heldu eta eskua gerrian jartzen dion aspaldiko korte egile ezin etsiarazia, usain goxo finez hodeiturik bera, ezpain finak mateletara bainoago belarrien ondora luzatzen dizkiona, uros iduri. «Baita zuri ere, jauna! Merkatuko aldi?». Eta sotilki, arropa kariroz jantzi kasko zuridun gizon kalakariari sobera kasurik egin gabe, Josefina kaleko biziari interesatzen da. Harakinak hortz zuri luzez bezero bat irriz agurtzen du, zaldi bat iduri, langileak dirdirarazi berri dion hozkailuko leihatilaren gibeletik. Joare ahin batzuen oihartzuna airatzen da bezeroa, emazte edadetu konkortzen hasia, saltokitik ateratzean. «Domingo zure herritarra ez al zen, bada, etortzekoa?», galdegiten dio Renaudin jaunak Josefinari, irri maltzurrez. Baietz, Josefinak, gaur berean eginen zuela, abisatua zuen bezala. «Alala! Herritar xume horiek bestenaz, zer bizi pausatua duten, ez duzu uste? Haiek egun osoa hartzen ahal dute halako bidaia labur batentzat!». Harekin erreferetan sartzeko gutziarik ez duenez, Josefinak Renaudin jauna agurtu du, Patxo Arizpururi ahatekia erreserbatzeko duen presaren aitzakiaz. «Zu ere haietatik pixka bat bazira funtsean!», diotso urrunagotik orain hasperenka, Renaudin lausengariak. Eta jendearen ar-

tean desagertzen da, Miarritzeko kafe karioetarantz. Josefinak solasaldi laburra egin du Patxo Arizpururekin hainbeste lan baitu gaur hark. Eta, ahate-hazleari hartzartuez gain, merkatuko beste ekoizpenik saskiratuko ote duen peskizan, itzulia egiten hasi da Alkabehereko alaba zaharra. Hona hemen, etxean egin ardi-gasna saltzailea. Emazte gazte polit bat da, hain polita ezen bere eskuek ez baitute lan dorpearen bortxa erakusten, halako esku zuriek! Ondoan, ogi eta bixkotxa egilea du, saltzeko mahai apaina duela, ahurkada bat gari pikor, ogia labean sartzeko pala irineztatuaren gainean, dena oihal garbiz inguratua. Lehengo biziaren gozoa orain «kalitatezkoa» ala «biologikoa» izenez gogorarazten duten salmahaiek arrakasta izaten dute Miarritzen. Bezeroak ere halakoak baitira: goi mailakoa den hura behar den prezioan erosteko beti prest. «Ekoizpenak saltzetik bizitzen ahal giren laborariak bakanak baizik ez baikira engoitik! Jendeak gero eta eskari gehiago du, dena garbitasun eta sanotasun ziurtamena nahiz, bat-batean beldurrak joa bezala, ezen, norbait hil duguia orain arte, agiri eta froga gutiagorekin?». Lanean etengabe dabilen Patxo Arizpururen beso sendo eta begitarte gorri kexatuari pentsatuz irri egiten du Josefinak. Tipi-tapa, urrats laburrez laster, merkatuguneko aterpearen ingurua egina izanen du. Gaur eskuak hutsik itzuliko da etxera, bazkaltzeko ordua gainean duela ez baitu deus erosteko tirriarik izan. Baina horra non ezustean begia erakarri dion saltoki ezezagun bat sumatu duen azokako aterpearen arras saihetsean. Usain berezi bat da nagusi. Barazki freskoak metaka: aza, entsalada, tipula, porru, pastanagre eta baita tomate borobil gustagarri bakar batzuk ere! Sasoiko lehenak dira, mahai haren

jaun eta jabe. Horra hor ere dozena batzuk arrautz eder, saski batean barra-barra emanak. Eta mahai haren aberastasunak ez dira horretan gelditzen. Lerro-lerro tripa gorriak erakusten dituztela piper-kontserbak ageri dira; *piquillo* delakoak!; baita oihal lilitsu batez apainki estalirik, erreximenta hautu nasaia, piku, masusta eta andere masusta gorri. Azkenik, ezia. Ezin du Josefinak bere harridura gorde. Mahai horretan gehiago dena, besteetan baino urriago dira erosleak! Zailtasunik gabe, beraz, saltzailearenganat zuzendu da.

—Kuriosa ez banaiz, jakiten ahal duta nondik dituzuen holako ekoizpen hautak?

Bilo bitxiko emazte gazte batek segidan azaltzen dio etxean egiten dituztela, luberritu duten eremu batean. Neska horrena bezalako ilerik sekula ikusi gabe-koa da Josefina: buruaren arrasetik ipurdiraino kasik, holako soka lodixko batzuen idurikoak baditu. Eta han-hor bere ile motots nahasien artean perla batzuekin petentak jarri ditu neskatoak, arras modu politean, aitor du bere baitarako Josefinak. Funtsean, gazte horrek ez du arrakadarik falta, belarrietan dituen bakarrez gain, sudurrean baitu azken bat, begi beltzak argitzen dizkion harrixka gorri bat. Haren ondoan bi haur dau-
de, jostari.

—Emazkidazu, otoi, dozena bat arrautza, bi entsalada, kilo bat pastanagre... —hasi zaio deliberaturik Josefina manatzen, bihotza jakin-nahiak hantua.

—Josefina, ene biziko bihotz mina! Hor zaitut, azkenean! —Renaudin jaunaren boza, berriz.

—Zer duzu ote niganik merezi ez duzunik, Renaudin jauna?

Salmahaiaren beste aldean, emazte gazteak irri egin du. Pastanagreak pisaturik, manatua luzatzen dio emazte zaharrari:

—Horra, anderea!

—Hartuko dauzkizut gainera... —eta Josefina jarraiki da bere erosketa zerrenda emendatzen. Renaudin jauna pazientzia harturik haren ondoan dago.

Ez baitu orduan inork deus ere ikusten! Edo, ikusten dutenak ez baitira mintzatzen! Emazte gazte sokaile luzedunaren mahaiaren azpitik zakur beltz ttipi zinez miko bat atera da. Haurrekin agusatzeaz aserik edo, aire hartzera doa.

—Saltokia hustuko duzu, Josefina adiskidea! Preseski eguerdi honetan bazkaltzera gomitatu nahi zintudala! —pleini da, emazteak kasurik egiten ez diola tente-potente, Renaudin jauna.

—Erradazu, eta barkamenduekin, zer herritakoak zirezten aipatu dautazuia oxtian? —galdegiten dio kalaka luzearen segidan Josefinak saltzaile gazte ia ezagun bilakatuari.

—.... koak! Han bizi gira duela zenbait urte jadanik!

Dena irrintzi eta ulu, kamioi baten galga zaharkituek saltzailearen mintzoa estali dute, eta neskak esaldia oihuz bukatzen duela, orro samin bat entzuten da.

—Deabru urde zikina! Zakur madarikatua! Ene Armani galtzak! Fundikatuak! Zikin-ontzirako on! —Renaudin jauna ikusten da, zakur beltz ñañoa harripatu eta kalitu nahi lukeela kexuaren kexuz gorri-belztua, zakurra haurren artean gerizatua, Renaudin jauna

zango sagar zuri mehea airean bere galtza bustiek jasan kaltea aztertzen, eta zakurñoa hankartea milikatzen, deskantsuan. Begi urdinak jakin-minez lehertzekotan hanturik eta irria ezin atxikiz, Josefinak Renaudin jaunari so egin dio, isilik, begi bistakoaz galdezka—. Txiza egin daut! Bai, txiza! Zakur zikin madarikatu... lepoa moztu beharko nakon zakur... *mierda* horrek! —dio ukabil hetsia inarrosiz eta isunaz, auziaz eta ordaindu beharreko sosez saltzaile gazteari mehatxuka doala, Armani jantzi dotorearen azpiko partea arrunt bustirik, Miarritzeko ostatu *chicak* oroz gainetik maite dituen gizonxkak.

—Aitatxi, nondik heldu zira zu hola?

Paraje galdu haren erdian boz ñimiñoa egiazkoa ote den, Domingo *Zamarilailen* sabelpetik atera eta so egiten du, zurturik. Segundo batzuk pasaturik eman dio arrapostua:

—Nongoa naizen ni? Hauxe da! Eta zu ote, muki-zuño hori?

—Ni Alkabeherkoa! —erantzuten du neskatoak irriz, eta jauzika.

Emeki-emeki gorputza lurretik erdi altxatua du, eta Domingok ezin sinetsizkoak ditu ez jakin nondik, ez jakin nola etorri berri zaion haurraren eleak.

—Egun on! —dio bat-batean gizon boz ozen bategi *Zamarilailen* gibeletik, Domingo arras zutik orain, zango bat mindurik lehen urratsa kakolki egiten duela, ahoa bete hortz begiak harri—. Barka ezaukuzu, abisa-

tzen entseatu gitzaizu, baina ez bide gituzu entzun! Ai ama maitia, zure autoak hartu duen ukaldia! —erran du arnasa labur, lau zaldidun autoari hurbilduz eta gurpil lehertuari erreparatuz boz lodia duen gizonak.

Miruari begiratu dioneko oihu bitxia bururatu zaio orduan Domingori, hura ditaikeela gizonak aipatzen duen deiadarra.

—Baina, zergatik ote barkamenak, jauna? Bide hau arrunt bere gisa utzia duzu, eta uholdeak egin kalteez ez zirezte zuek hobendun!

—Ez, egia duzu, baina...

Gizona kezkatu hasi orduko, irri zabala ezpainenetan botatzen du neskatxak:

—Ez, aitatxi! Arroila hau guhaurek egina duzu! Zila eta zila bi egun eman genituen! Sarri erakutsiko dautzut atera lurra non eman ginuen baratzean!

Alkabeherera bidean zihoan artzainak gainbehera bezalako bat sumatu du bere baitan, eta txapela buruan itzulikatzen du, argitasun gehiago nola eskatu ezin asmatuz.

—Esplicituko dautzut —fermukiago orain gizonak— errepidean seinalerik ez dagoenez, ez dakikezu bidexka honek Alkabehere deitzen den herrira darabala. Hutsik atxeman ginuen aspaldian nehor bizi ez den herria zen hori, eta gu hangoak gaituzu zenbait urte hauetan. Funtsean, Uhartz han sortua duzu, Alkabehereko bost haurretan lehena —dio zangopetan jolasean duen umearen burua ferekatuz. Badu orain hamar urte Alkabehere desegin nahi dutela immobiliariorio batzuek, eta gu kanporatzeko gero eta deliberatua-

goak dituzu. Horregatik, herrirako sartzea trabatu nahi izan dugu, haien gogo berantatzeko doi bat. Eta haiek ez baina zu bezalako ibiltari arruntek bidea segitzen eta arroila ez badute ikusten?, pentsatuko duzu. Egia erranik, ez da arraro baizik norbait xenda kaskar honetatik beheiti menturatzeko. Bada, lanjerraz abisatzeko gintuzun oxtian mendi mazela honetan —goiko sasi lodira seinalatzen du— sobera gora ene ustez, ez baigituzu entzun eta korrika hasirik ere, ezin izan baitugu zure ibilbide irriskutsua geldiarazi.

Domingok lasterka irudikatzen du ile gris luzea duen bere mintzalaria, praka laburrek erakusten dituzten zango gihartsuei begira, eta bere kolkorako galdeztzen nolaz zen bietatik haurra lehena iritsi autora. Gizonaren ezin gordezko tripa borobil harengatik, beharbada? Ongi bizi ditaizke, itxuraz, Alkabeheren berpiztuan.

—Bon, errazu, kondatu dautazun istorio luzearen parrean, nik laburra eginen dautzut: autoa fundikatua dut, laguntza hemendik ezin urrunago, eta etzi Miarrizten behar dut, preseski... —Domingok salatzean du Urruti-Etxarte-Uhalde sozietatea Alkabeheren bereganatu nahi duen higiezin enpresako ordezkariekin hizordua duela. Gizon kima luzedunak baleki!

—Ez zite arrangura. Alkabeheren bagituzu jende anitz, denen artean autoa zulotik jalgiaraziko dautzugu. Batek mekanika ezagutzen du, eta motorrak zerbait kalte badu, hark konponduko dautzu.

Ilea karrakatzen du segundo batez Domingok, eta hondarrean:

—Bon, beste biderik ez dut... goazen beraz! Beharrik eta ziloa ez baituzue herritik urrunegi egin!

—Ezagutzen duzu hartaz, Alkabehere?

—Ez! Bo, nola erran... lagun batek azaldurik zautan pistatik zenbat kilometrotan zen herria, eta erroiztu aitzinttoan begiratu berri nion autoko kondagailuari. Hamabost kilometro banituen eginik, erran nahi du beste bi falta direla herriraino, ez dea hala?

—Hauxe informatzaile jakituna duzuna, baiki! Kurios nintakezu jakitea zure laguna nor den! Ezen Alkabehere nihun ez baita agertzen, ez eta Armadaren karta horietan ere!

—Bo! Miarritzen bizi baina aspaldian zuen herri hartan ahaide batzuk zituen emazteki bat duzu, besterik gabe.

—Hori! Beraz Alkabeheren biztanleak baziren berriki artio! Horixe berri ona guretako! Haiek mintzatzan ahalko bagintu, laguntza eskatuko genieke herria mekanika madarikatuek ez dezaten honda. Eginen baitute, segur! Buruan barnaki sarturik dute, gero, beren Antzinako Euskaldunen Herria delako aisialdi lekua!

—Aita! Alkabehereko zaharrei nik galdeginen diet Elainekeo harpean laminarik bazenez lehen! Bai eta Herensugeak non lo egiten zuen ere!

—Badakizu, Alkabeherekoak zinez grinaturik gaituzu, fueratuko gaituztela. Jende batzuek lagunduko gaituztela erranik badaukute, baina eskualdeko gehien-goia promotoreen aldekoa duzu. Joan den astean ardiak mozten laguntzen gintuen artzain batek ukatu digu eskukaldia. Elizazpiko ostatuetan gutaz gaizki mintza-

tzen hasi dira, kabalak ez ditugula ongi artatzen, gosez hiltzera uzten ditugula, eta holako. Egia aurtengo negua gaiztoa izan dela, eta nahi baino gehiago ardi joan zaizkigula, baina, nori ez?

—Gure herrian hasteko, behiak ere hil dira, eta ez bakarrik neguan, udazkenean berean, iraztokietara bazka eskasez sarturik, pozoituak bezala. Nik, berriz, hamar bat ardi segurik galdu ditut. Eta erretretan izanik, laguntzarako dretxorik ez! Zuek, bederen, zerbait sari hunki dukezue!

—Ezta bihirik ere, egiaz! Dena dela, aspaldi du beharrezkoak dituzten papereria guziak betetzerat ez girela heltzen. Laguntza eskatetik nekatu ginen, eta hondarrean Biltzarrean deliberatu ginuen bere gisa uztea, debaldekoa zela laguntzekin tematzea.

Biltzarra. Zerbait daldaratu zen Domingoren baitan. Istant baten buruan baizik ez zen «zer duzu ote delako Biltzarra?» galdetzeraz menturatu bideko lagunari.

—Alkabehere bezalako beste herri okupatueta asanbladak deitzen dituzte, ala batzarrak, kasuan kasu. Biltzarra hitza hautatu ginuen guk, batek historiako liburu batean irakurri zuelako Elainaldeko eremuan hala deitzen zirela lehenagoko eskualdunen eguneroko bizia antolatzeko eta arautzeko bilkurak. Biltzarra. Arras zuzen! Aita zenak aitatxiren ordezkoa hartu zueneko egunaz pentsaketan hasi da Domingo. Amak izan zuen Biltzarra biltzera zihoalako berri, arropak errekan garbitzen ari zela Muturzurieneko Anitak senarraren partez Iaienekoak abisa zitzala eskatu ziolako. Aitari bazkalorduan jakinarazi zion amak, eta zoriondu zuen. Ohoreaz hunkirik sumatu zuen aita gizontzen ari zen

orduko Domingok. «Eta gero, hire aldi!», adierazi zion etxeko jaunak semeari, bere begien dirdira ezkutatzearren zapata lohitsuena soka tinkatzera makurtzen zela. Iragan zorionsuko bizia bere oroimenean urtu zen bezala, hala lurraren azaletik lurperatutzat zeukan Biltzarra. Eta honek... oraindik segitzen! Horren berri aitatxi zaharra dela hartu behar ere, biziak Alkabeheretik urrundu duela! Burumakur, denborak erotu direla pentsatzen du Alkabehereko seme zaharrak, eta aldaketa larriak ekarri dituztela, eta antzinako bizimoduak errauts bilakatu direla.

—Azkenean berotasun poxi bat, ez dea hala? —bideko lagun duen Alkabehereko biztanle berria zerura begira dago, eguzki gazteak begiak zarrarazten dizkiola—. Zuk ere hatsean hartzen dukezu hotzaren joaitea, ez? —haren oharrak gogoetatik atera du artzain zaharra.

Dударик ez, zerua ezin urdinago eta arbola hostatu berrien berde argian jostari dabilela, hots, bi hilabete lehenagoko egun labur eta grisetatik alde gozoa badela.

—Bai, aspaldian ez bezalako negua iragan dugu aurten —hasi da Domingo hasperenka—. Gure haur denboran elurra luzeago egoiten bazen ere, ez zuen halako karroin saminik egiten, ez —eta isiltasun une baten ondoren—: Errazu... barkatuko nuzu, Alkabeheren andanatto bat zireztela erran dautazu lehen... baina non bizi zirezte, xuxen?

—Plazaren ingurua ahal bezala moldatu eta lau etxe ideki ditugu orotara. Bestalde, Herriko Etxea.

—Iaiaenea idekiotan dea? —itauntzekotan dago Domingo. Baina jakin-mina tuarekin batean irentsi du, eta errepikatzen—. Herriko Etxea? Hori ere baituzue?!

—Bai, so egizu. Lau talde gira, edo familia, deitazu nahi duzun bezala, bedera etxetan bakoitza. Lau kuple gira, horietako hirurek haurrak ditugu. Hots, hamahiru jende gira Alkabehereko biztanleak. Herriko Etxean, berriz, denbora labur baterako edo pasaian diren lagunak ditugu aterpetzen, nahiz udan haietatik gehienek kanpoan maiteago duten lo egitea. Halaber Herriko Etxean apaindu dugu denen arteko sukalde eta jangela, eta Biltzarra egiteko lekua ere.

Milaka xinaurrik ziztutzen balute bezala sendi da Domingo, izerdi zurrustatto batek bizkarrezurra kilikatzen diola, bide harriztatu gora. Aspaldi berantetsia zen, bada, Alkabeherera joateaz, baina sorterrira hurbildu arau hain zaizkio berritasun eta ustekabeak handi, ezen jasan ahalko duenez ere, arranguratzten hasi baita. «Atxikiko duka?», diotso bularpetik bere bihotz urduria-ri. Jende berriak Alkabeheren bizitzeak ez du desgustatzen, a kontrario. Hits ere ez zaio herriko bizitegiak arrotzek *okupatuak* ikustea. Ala hobekiago leudeke hutsik eta erortzekotan? Baina mende erdi lehenago Alkabehera utzi zuen bezain isilik aurkitzea nahiago izanen zuen. Etxarte sasitu eta belartuen artean bakarrik promenatuko zen, eskuarekin pareta, ate, harri, burdin eta zureria zahar oro ferekatuko zituen. Burua, aldiz, biztanle zaharren, eguneroko biziaren, sukalde, festa eta abeltzaintzako usain, kolore eta soinuuen oroitzapenei emanen zien. Horien orde z horra, hamahiru begi pare, hamahiru galdera egile eta bakartasunaren hausle izanen dituela, bihotza, berriz, lehertzeraino hantua. Ezkerreko eskuarekin bere bularra torratu du, eztiki. Eta Iaiarena? Nola jasan kanpotarrek zaharberriturik badago? Nola jasan eta, oroz gainetik, sekretua

ez eman? Izan ere, garbiki sumatzen du eta Domingok, indarge dagoela egia aitortzeko: Alkabehereko *egiazko semea bera* dela.

—Zuen herri hartara noizbait helduko gira, arazi?

Jakin badaki azken maldaren ondoren Alkabehere bere zabalera osoan agertuko dela, haraneko bitxi edertzalea, Elain errekak bitan banatua.

—Zaude gustuan, aitatxi, berehala etxean gira!
—esprikatu dio Alkabehere berriko Uhartz delako neskatoak—. Aski dugu patar hau igaitea —besoa eginahalak gorritu bere aurpegi borobiltxotik haratago goratzen du erakusgarri—, eta herria oso-osorik ikusiko dugu! Erdian, Herriko Etxea eta bere pirata bandera hurrek guhaurek josia!

Ikaran dago Domingo. Asunenbordatik abiatu aurretik holakorik nork pentsa?! Zer dela eta, pirata bandera? Nora sartzera ote doa, eta zer-nolako jendea ote da Alkabehere berrikoa, gizon ile luzeduna, izen arraroko bere alaba eta haien lagunak? Bere burua madarikatzen du Elizazpiko Pernandorena tabernara ez sartu izanik zerbait berri hartzera, Alkabeherera etorri aurretik. Pernandok edo emazteak denak salatuko zizkionten, horixe baietz! Prestik eta jakitun etorriko zen! Miarritzera segituko zuen... Bere autoa ez zen egonen arroilaren erdian amildurik! Txakurrari hasierako herrena pasatu zaio, behintzat, eta buztana airean pozik, hirukotearen buruzagitzan badoa, joan-etorrian, ibiltariak ez zaizkiola eskapatzen frogatzeko bezala. Alta, zenbat nahiko lukeen Domingok bideari bizkarra eman eta Miarritzerako noranzkoan ihes joatea! Zenbat nahiko ez sekula Alkabehereko xendari segitu iza-

na goizean! Gainera, maiatzeko eguerdiko berotasunak hesten dio arnasa, eta Alkabehererako azken ehunka metroak kostatzen zaizkio. Gutierrez herriko iturria konpondurik balute! Hango ur zirrinta freskoaren gozoa eztarrian behera!

Iritsi dira, azkenean, gailurrera, Alkabehere dakusate orain. Pentze berdez inguratua, oihanak gerrikatua eta zilarrez zatibitua! Alkabehere maitearen teilatu gorri ilunak, laparrek harturik zenbait, zutik eta irmo besteak, lur koloreko pareta arrailduak aurkakotasunari buru egiteko oraindik gai! Halako batean neskaxa intziri luze hauskorrean hasi da, eta jarraian herritik korrikalari ttipitto batzuk agertu dira, bi zangokoak atzean, laukoak aitzinean lasterka, zaunkaka eta oihuka. Beldurraren beldurrez Domingoren txakurra uzkurtu da, ileak hartzi-turik, defentsarako prest.

—Lasai, *Ahabi!* —diotso laztanen artean Alkabeherereko haurrak—. Ez dituk zalapartariak baizik!

Hiru ibiltariiek herrirantz segitzen dute, eta laster heldu dira haiengana bospasei txakur, zein baino zein zaratatsu eta jatorriz nahasiago, aita-alaben eskuak milikatzen, arropak aurreko bi zangoekin buztin idorrez zikintzen, *Ahabiz* mesfidati. Haur zarpailtsu batzuk hurreratu dira gero, eta jende eta txakur korapilo harramantzatsua sortu da. Domingo eta *Ahabi* bazterrean gelditu dira, zaharra Alkabeherez gose begiez klika lezakeela, aldi berean arrotz sendi dela. Gauzak fite doaz ondotik, umeak korrika berriro, herri kaskorantz aldi honetan, gainontzeko herritarrak heldu berrien etorreraz abisatzera.

—Aita! Ama! Gomita badugu! Gizon xahar bat jin da zakur batekin!

—Zatoz, Herriko Etxera eramaneen zaitut gustu baduzu, eta han aurkeztuko dauzkizut beste alkabeheretarrak. Memento onean heldu gira: den tenorean naski, jatekotan izanen dira!

Haurrak etxeen artean desagertu dira, eta haien algarra urrunean entzuten da. Egun batez harriztaturiko oraingo Alkabehere berriko kalean, belarra da, Domingo maitekiro zapaltzen doana. Muturbeltzenea eskuintean utzi dute; eta herdoilak ezin garaituzko sarraila zizelkatuak atean irauten duela ohartu da. Ezkerrean zenbait metrotara, zubia baino lehen, Manezhaundi ikusi du, tximinia konkortutik kea dariola. «Han bizi dituk, beraz, haietatik batzuk!». Leihoak hamaika kolorez tindaturik ikus balitzate, zer pentsa zezaketen maneztarrek! Parean daukate orain gizonak Herriko Etxea deitua, Alkabehereko Ihintzarena, haurrek josi pirata banderarekin. Horretan ere, kea eta ortzadarrean baino margo gehiago! Harritzko atariak ezkaratz ilun eta freskora murgilarazi ditu, eta Domingok ezin du Margari Ihintzareneko ama zenari buruz ez pentsatu. Margarik Alkabehereren odolustea ez zuen soportatu, are gutxiago bere seme-alabek alde egin izana. Haien beren Elizazpiko etxera ama eramaten tematu baziren ere, ez zuten lortu. Goiz batez Domingok gorpu atzean zuen Margari bere ohean, adinak eramanez. Azken eta alkabeheretar bakarrak zer egin zezakeen? Asunentzako aldatzea erabaki zuen, ondorioz. «Zuen Ihintzarena Herriko Etxea bihurtu zauku Margari, so egizu horri!», hausnartu du Domingok bere baitan, «kanpo-

koa kendurik, hala ere, kasik zuk zenuen bezal-bezala-
xe utzi dautzute etxea gazte arrotz hauek! Ez ahal ditu-
zu erasiatuko?!». Irri egiten dio irudipenari: Margari
nortasun handiko emaztea zen, gero! Uuiuu eta aiaiaka
bukatu zuen batek baino gehiagok harekin, amore ez
baitzuen egiten sorginak, ezta pentsatu ere! Herioaren
ondotik ere mendeka zitakeen!

—Gure Herriko Etxea gustatzen al zaizu, jauna?
—galdetu dio ile horiak begitartetik kentzen eskua
ematera datorkion andere gazteak, Elainaldekkoa ez den
euskaraz—. Herrian konpondu genuen lehena izan
zen, izan ere, sendoena baitzen. Teilatua berregin eta
horma bat edo beste indartu besterik ez genuen behar
izan. Ezkaratz honetan ikusten dituzun altzari guztiak,
adibidez, lehengo jendeek utzitako berak, sukaldeko
ontzi guztiak ere hemengoak dira... eta gaineko pi-
suan, berdin! Pentsa dezakezu zer suertea izan dugun!

Margariren ondokoek, beraz, ez zuten axola handi-
rik izan sortetxean utzi zituzten puxkez.

—Gosetua behar duzu, seguru, halako bidea egin
eta! Nolaz, bada, Alkabehera honetan galdu zara?

Ile luzeekiko gizonak, emazteak Koxetxo izenez
deitu duenak, bisita bortxatuaren zergatia adierazi dio,
eta Hodei bataiatu emazteak barkamenak errepikatzen
dizkio Domingori.

—Ai!, nork pentsa zezakeen halakorik gertatzea!
Jomuga ez zen, inondik ere, pasaiako norbait, Alkabe-
behere hautsetatik atera berriaren estaltzera laster eto-
rriko diren pala mekanikoak baizik!

Noizbait, hamahiru alkabeheretar berriak Ihintzarena-Herriko Etxeko sukaldeko mahai luzean eta kazola ketsuaren inguruan bildu, eta koilara-sardeganibeten hotsari, eta hortzen kliski-klaskari Domingo izutzen zuen elkarrizketa nagusitu zaie. Ez diote, esker-rak, Alkabeherera etortzearen arrazoirik galdetzen. Funtsean, galdaketa praktikoa baino ez da; hala nahiago, segurki! Zeren eta alkabeheretar berri bitxiok, oren buru, buruhauste bakarra baitute: nola Domingoren autoa zulotik atera eta gurpila ordezkatu. Arratsaldean arroilara taldean sokak harturik hurbilduko direla diote. Eztabaidatu eta, astoa hartzea erabaki dute, jendeen besoekin batera ongi etorriko zaielako *kuatroelea* lur sakoneko zepotik gora ekartzeko. Bazkarian, barazki-salda, lursagar eta arrautza frijituak.

—Desertarik ez ginuen pentsaturik —dio denbora osoan Adela sukaldariaren laguntzaile aritu den beste neska batek—, baina nola gomita baitugu, etxeko konpota bixkotxa batzuez lagunduko dugu, ados?

Erratearekin bat, gaztaina kolore argiko kristalezko ontzi baten estalkiari eragin dio, indarrez. «Pup!» entzun da, eta Domingoren platerean konpota arinarekin batera hedatuz doa udazkeneko haize zirimolatsua eta udako azukrea bildurik dituen fruituaren usaina. Koilara ahoratzean mahaiari erreparatu dio alkabeheretar zaharrak. Helduek ez hurrek ere, kasurik ez diote egiten janzkerari, orrazkerari edo garbitasunari. Arropak dituzte nolanahika emanak; prakaren gainetik gona, kamisetaren azpitik atorra; gehienetan zaharrak ez errateko piltzarrak, batzuk arras zikinak. Ileak, berriz, nola erran! Gizonari ala emazteari dagokienetatik urrun.

Koxetxo bidean aurkituriko delako gizonak, demagun, ileak luze baditu, bere emazteak aldiz... ene Jaungoikoa! Arrasean kaskamotz utziak! Haurren artean gauza bera da: ez jakin ilez nor den mutikoa eta nor neska. Badira ile luzeak dituzten emazteak ere alkabeheretar berriotan. Bigarren sukaldaria, kasu baterako. Baina hark duen adatsa, berriz! Ipurdiraino doakion ile-korda-meta bat du, ile-soka bat edo beste gorritz margotua, han eta hemen gehienak, arrakadaz apainduak. Hamar pasa badituzke ileetan, beste hainbeste belarrietan, eta baita sudurraren erdian ere! «Alkabehereko etxeetako margolaria hau dela paria nezakek!», dio bere kolkorako Domingok, neskak soinean daraman kolore nahasketari bat-batean ohartuz.

Halako batean, mahai azpitik mutiko kozkor baten burua agertu da, ezpainak zabal-zabalik konpotaz gozaten dagoen amaren jertsea bortizki altxatzen eta dilingo ikusten den bularrera zuzen doana, antsiaz eta egoskor esneka, bi zangoak lurrean tinkaturik amaren besopea trabatzen eta jatetik geldiarazten duela. Amak aldamenekoarekin solasean jarraitzen du, gauza arrunta balu bezala, harik eta hasperen sarkor batez ezpainak milikatuz eta eskua oraindik amaren bularrean, haurra asetzen den arte. Orduan, txilioz eta lasterka etxetik kanpo jolasean dabiltzan beste umeengana doa. Domingo azken koilarakada konpota ezin irentsiz dago, bere bi begiez ikusia gezurra balitz bezala. «Ardiak artzarra edaterat uzten!». Ardiak bildotsa nola ostikatuko zuen irudikatzen du, eta nardagarria iduritzen zaio ama hark ttarrotua duen semeari modu horretan amore ematea. Bazkaria amaiturik, kafea edaten dute eta Domingori pattarra proposatzen diote. «Etxean egin dugul!», espli-

katu dio Hodei delako emazteak. Domingok errefusatu du, arratsalde gogorra izanen delako aitzakiaz, buruko min zerbaitez egiazki, eta pistara abiatzea proposatuz, Alkabeheretik urruntzeko nahitua.

Zenbait denbora geroago, Alkabehereko gehien-goak autorako bideari ekiten dio, haur txikienak soka piloaren gainean astoaren otzara barnean balantzaka, besteak helduen eskutik, oinez. Denetara hamar herri-tar eta Domingo doaz. *Ahabiren* inguruan jostetan, txakur andana bat.

«Bidarraiko Ostape luxuzko ostatuaren aurkako leherketan parte hartu lezaketelakoan bost gazte arrastatu ditu gau honetan Baionako Poliziak.

Alain Ducasse sukaldariaren talde ekonomikoak Poliziaren geriza eskatu du».

Urruti-Etxarte-Uhalde Eraikuntza Sozietate Elkartuaren egoitzan maiatzeko astearte goiz argitsu hartako berriak denak harritu ditu. Urteak ziren ez zutela holako gosari ilunik izan. Iduriz, betikoz ahantzizat, zergatik ez esan: desagertutzat ere bazituzten garai bateko ideia eta xede sunsitzailleak berriz agertzen ziren, kolpepe. Goiz hartako berria aurpegira jaurtiki isurki hotza zen, baiki, eta zalantzarri bihur zitzakeen bidean ziztuzten proiektu anitz.

Kopetilun daude enpresaren egoitzako sarrerako idazkariak, kopetilun, halaber, atezainak, kopetilun, sustut, Administrazio Kontseiluko kideak. Horiek usaiatz kanpoko bilera dute goizeko hamarretan, eta haietatik

batzuk egoitza nagusira hurbiltzen hasiak dira. Alegia deus ere ez, autotik jaustean inguruak egiaztatzen dituzte eskaileretarik goiti hasi aitzin, segurtasuna orobat diskrezioa baitira egoera horietan manatzaile. UEUS hizki handiak daramatzen arkupea iraganik, ate automatikoa irekitzen zaielarik, arranguratzeko pisuzko arrazoi bat, bederen, gainetik kendu dutela iduritzen zaie. Orain pentsaketan jartzen ahalko dira zezena adarretatik nola har. Elkertasunak indarra ekartzen baitu, denen artean irmoki jokatzeko jakinen dute.

Hamalau administrariak, gehienak gizonak. Gene-roen arteko parekotasunaren alde indar egitea zaila da eraikuntzaren arloan. Bildu direnean, kontseilua hasi da.

—Zainak eta burua galdu gabe aurrera jarraitu behar dugu, adiskideok, eta ordu txar honetan zentzuz erantzuteko gai izan behar dugu... —hasi da Etxarte jaun lehendakaria. Begitarte nekatua du, gaua airean pasatu duen gizonarena, informazio ugari izaki eta batzarrari zer eta nola adierazi behar dion neurtuko duenarena, arazoei buru egiten dakien enpresaburu nortasunezkoarena. Bere idazkariak ordenagailu eramangarriaren pantaila mehea ideki eta tresna piztu du, bilkura gelako paretan urrunetik gidaturiko leihotxo zuri bat azalduz doan bitartean—. Zehazpenak entzun eta, administrari adiskideok, egoera aztertuko eta argituko dugu. Zertan dago gaur egun Euskal Herriko eraikuntzaren eta, oro har, lurgintzaren merkatua? Eta zertan ote, gure egiteez herritarrek duten iritzia? Inkesta jalgi berria, inork oraindik eskuratu gabea, are gutxiago prentsak —dio muzin eginez—, eskaini digu Baionako Merkataritza Ganberak, eta horrek zurta-

tzen digu haizeak gure alde segitzen duela. Hots, herri-tarren gehiengoak begi onez ikusten du eraikuntza eta lurgintza arloaren garapena...

Hastapenean, Baionako Merkataritza Ganberak iker-tu zifrak ezagun eta garrantzi gabekoak ziren, gero al-daketa baten erakusle bilakatu dira eta, azkenik, zerbait grinagarri dira; bai, behintzat, lehendakariaren idazka-riak horman argitu dituen kolorezko grafiko, eskema, ardatz eta estatistiketan. Ezen iduri bailuke, batetik, hiri-ko giroan etxe hustuak legez kanpo bereganatzen edo *eskuatatz*en dituzten jendeak emendatuz doazela, bide-nabar indartzen. Azken datu hori ez da merkataritza Ganberakoa, baina Polizia Etxekoa.

—*Eskuatatz*aile horien artekoak ote dira gauean Baionako Poliziak atxilotu bost gazteak? Zeren egiteko gai ote dira jendartearekin loturarik nahi ez duten haiek, eta haiek bezalakoak? Zertan eta zer neurritarai-no mehatxa lezaket Urruti-Etxarte-Uhalde Eraikun-tza Sozietate Elkartuaren, Ipar Euskal Herriko talde azkarrenaren, garapena? Horrek kezkatzen gaitu orain, adiskideok —dio larridura aurpegiz Etxarte lehenda-kariak.

—Jakin ezazue, bestalde —segitzen du—, Alkabe-hereko gure Antzinako Euskaldunen Herria aisialdi proiektu historiko-kulturalaren inguruan ere aldagai berriak kontuan hartu beharko ditugula, hemendik at. Oroitzen dukezen Domingo Larregain, Alkabehe-reko azken biztanlea, gureganatu nahi genuen gizona. Harekin bilera izan dugu atzo. Gizon samurbera bada, eta proiektuaren beharra arras ulertzen badu ere, do-kumentu zahar batzuen jabe da. Ongi entzun: idazki